

BALIABIDEAK

Gure negozio ereduak ongi funtziona dezan beharrezkoa izango ditugun aktibo nagusiak edo baliabideak behar-beharrezkoak dira. Gure aktibo nagusia oro har eskuragarritasuna izango litzateke, hau da, gure eskualdean martxan jarriko dugun proiektua denez, behin sistema guztia antolatuta oso erabil erraza izango da, jada, ordainketa sistemak eta maparen nondik norakoak ordenagailuko Web batean antolatuta egongo baitira.

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide dira beharrezkoak. Alde batetik, baliabide fisikoei dagokienez hainbat dira funtsezkoak. Hasteko, gure bizikleta sarea muntatzeko ibilgailuak eskuratzea beharrezkoa izango da, beraz, hau izango da baliabide fisikoei dagokienez eman beharreko lehenengo urratsa. Gero, sistema informatiko konplexu bat sortu beharko dugu txartelen erabilera eta ordainketak kudeatzeko. Bukatzeko, salmentarako puntuak jarri beharko ditugu, paper-dendetan, bai txartelak saltzeko baita kargatzeko ere. Hauxez gain, beste salmenta puntuak bizikletak aparkatzeko guneak izango dira, izan ere, gune horietan gure zerbitzua salduko dugu.

Bestalde, giza-baliabideak ere funtsezkoak izango dira bizikleta sarean, izan ere, enpresa edo erakunde batean lan egiten duten pertsonak osatzen dituzte hauek. Horrez gain, ezagutza eta gaitasun komertziala oinarri duten enpresen kasuan, langileen lana ezinbestekoa izango da, bizikleta-sarearen webgunea sortzeko garaian adibidez. Ingurunea ondo ezagutzen duen baten laguntza beharko da, bideak, mapak, aparkalekuak... erabakitzeko. Bestalde, gure enpresak oinarri komertziala duenez, erabiltzaileak erakartzeko ere baliabideak pentsatu beharko dira: iragarkiak, kartelak... Beraz, sormena ere proiektuaren oinarri izango da.

Finantza-baliabideen kasuan, kreditu linea bat antolatzea izango da gure lana. Bazkide, zein erabiltzaileek ordaindu beharko duten prezioa zehazturik, bizikleta-sarearen webgunean erregistratuko ditugu eta beraz, proiektua abian jartzean, erabilera minutu bakoitzeko dirua gutxitzen joango zaie, kargatu duten txarteleko saldotik alegia. Dirua ere aukera baliagarria izan daiteke proiektua aurrera eramateko, baina gure kasuan digitalki egitea errazagoa dela iruditzen zaigu.

Enpresa guztien helburu nagusia da errentagarria izatea eta horretarako diru sarrerak edo iturriak izatea ezinbesteko helburua da. Diru sarrera horiek lortzeko egiten dira gainontzeko ekintza-estrategia-plan guztiak. Alde batetik, baliabide hauen helburuetako bat bezeroengana iristea da. Horretarako, iragarkiak eta kartelak egitea funtsezkoa da. Beste helburu bat, bezeroekin harremana mantentzea da. Hau egiteko, txartela kargatzeko guneak (paper-dendetan) eta gurekin kontaktuan jartzeko telefono zenbaki bat ere ipiniko ditugu. Azkenik, baliabide hauen hirugarren helburua diru sarrerak lortzea da enpresak aurrera jarraitzeko beharrezkoak direlako.

Laburbilduz, gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide mota beharko ditugu, bizikleta sarearen erabilerraztasuna bermatzeko. Baliabide hauen helburua bezeroekin harremana mantendu eta dirua sarrerak lortzea da. Baliabide fisikoak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak dira aipagarrienak.